

**EBAZPENA, 2014ko apirilaren 4koa, Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariarena, 2014ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez langileak hautatzeko egindako deialdirako eratutako epaimahai kalifikatzaileetako kide baten ordezkoa izendatzen duena.**

Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariaren 2014ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez, Enpresa Teknikari/Merkataritza Teknikari/Market Analyst kategoriako lanpostu bat eta Idazkari/administrative assistant kategoriako beste bat hornitzeko hautaketa-prozesu baterako deialdia egin zen, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura jarduteko.

Ebazpenaren eranskineko 5. oinarrian, Leyre Madariaga Gangoiti Kanpo Harremanetarako zuzendaria izendatzen da, bi lanpostu horiek hornitzeko sortutako epaimahai kalifikatzaileetako kide izateko.

Baina Kanpo Harremanetarako zuzendariak deialdiko elkarrizketetan parte hartzerik ez duela izango aurreikusten denez, bidezkoa da bi epaimahai kalifikatzaileetarako ordezeko bat izendatzea, zuzendaria falta bada nahiz gaixorik badago, haren ordezkari jardun dezan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. Kanpo Harremanetarako teknikari espezialista Sofia de Orue Valdés izendatzea Leyre Madariaga Gangoiti Kanpo Harremanetarako zuzendariaren ordezeko izateko, Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariaren 2014ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez bi lanpostu hornitzeko egindako deialdiko epaimahai kalifikatzaileetan. Deialdia Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura lan egiteko Enpresa Teknikari/Merkataritza Teknikari/Market Analyst kategoriako lanpostu bat eta Idazkari/administrative assistant kategoriako beste bat hornitzeko egin zen.



ANDER CABALLERO  
Euskadiren Estatu Batuetako ordezkaria.